



SI NOS UNIMOS
TODOS, PODEMOS
CONSEGUIR COSAS
QUE ARREGLAN
EL MUNDO

Prestakuntza-jardueren organigrama

Ikastetxea eta tokia:

Equipo eskola, Murtzia.

Data: 2017- 2018 ikasturtea.

Harremanetarako
pertsona: **María Gasperetti,
Susana Baño,
Salvador López.**

Harremanetarako
datuak:

direccion@eequipo.e.telefonica.net

Zentroaren testuingurua, hezkuntza-maila
eta ikasleen profila:

Escuela Equipo Ierro bakarreko ikastetxe kontzertatu bat da. Haur Hezkuntzako 2. ziklotik DBH-ko 4. mailara bitarteko etapak eta bi gela irekik osatzen dute bere eskaintza.

Murziako kanpoaldeko auzo baten kokatzen da, ortuan sustraitua, maila sozioekonomiko baxudun biztanleriaduna.

Esperientziaren azalpen laburra

Zertan zetzan?

Urtero hainbat prestakuntza-jarduera antolatzea gai hauen inguruan: giza eskubideak eta mundua mugitzen duten ekintzetan funtsezkoak diren balioak; gure inguruko zaintzen esparrua eta guraso nahiz laguntzaileak hezkuntza-proiektuan inplikaraztea, jarduera bakoitza maila desberdinetara (ikasleak) edota komunitateko sektoreetara egokituta eta zuzenduta.

Beraz, ez da esperientzia bakarra, baizik eta izaera iraunkorra duten bizipen eta jardueren multzoa, jarritako helburuak erdiesteko bidean aurrera egiteko balio dutenak.

Ikastetxearen parte-hartzea eta antolakuntza haren funtzionamendua eta lana egituratzen duten hiru ardatz handi hauen bitartez artikulatzen da: balioetan oinarrituta hezte, ingurumena zaintzea eta hezkuntza-komunitateko parte-hartzea kudeatzea.

Gure hezkuntza-proiektuan, Giza Eskubideetan eta hezkuntzarako funtsezkoak diren beste balio batzuetan, hala nola erantzukizuna, berdintasuna, duintasuna, enpatia, errespetua, askatasuna, tolerantzia, malgutasuna, jakinmina, elkartasuna, kulturartekotasuna, lankidetzatza, adiskidetasuna, asertibitatea, sormena, hezkidetzatza eta autonomia, hezteak izugarrizko garrantzia du.

Beti gogoan dugun beste zutabe bat gure ingurune hurbilarekiko errespetua, ezagutza, kontserbazioa eta zaintza dira, planeta babesteko ikuspegi globala galdu gabe.

Halaber, partekatzen ditugun helburu horiek erdiesteko ezinbestekoa den herritartasun global eta eraldatzailea lortzeko hezkuntza eraikitze lanean eta bidean, funtsezkotzat jotzen dugu gure hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien inplikazioa eta parte-hartzea.



Esperientziaren azalpen laburra

Balioetan oinarrituta hezteak presentzia du gure ikastetxeko egunerokoa; izan ere, askotariko jarduera eta metodologiatan islatzen da:

- **Ikasgelan, ikasle nahiz irakasleek honako jarduera hauek egiten dituzte elkarrekin, besteak beste:**
 - Bizikidetza-akordioak.
 - Ikasgelako asanblada: gatazkak konpontzea, erantzukizunak berrikustea, gizarte-gaien gaineko prestakuntza...
 - Hiruhilekoko prestakuntza-gaia garatzea: marrazkiak, horma-irudiak, poesiak, ikastetxeko egunkarirako artikulua idaztea, urteko egutegirako diseinuak...
 - Berdinen arteko tutoretzak.
- **Ikastetxe-mailan:**
 - Klaustroak hiruhilekoko prestakuntza-gaia aukeratuko du; adibidez, ikasturte honetan Garapenerako Helburuak izan dira. Gero, gai hori ikasleekin artikulatzen da, dinamiken, emanaldien, antzezpenen, horma-irudien, eskolako egunkarirako artikuluen, urteko egutegirako diseinuen eta abarren bidez.
 - Eta hezkuntza-komunitate osoarekin (familiak, irakasleak ez diren langileak, ikasleak, irakasleak eta kolaboratzaileak) bizikidetza-ekintzak, guraso eskolak eta asanbladak egiten ditugu; ikastetxeak ondo funtzionatzeko beharrezkoak diren ardurak betetzen ditugu (jolastokia, jantokia, liburutegia, ludoteka, garbiketa...); eskolaz kanpoko jarduerak egiten ditugu eta ikasle guztiek parte har dezaketela bermatzen dugu; natura-ikasgelak eta udalekuak antolatzen ditugu.
- **Hauen bitartez hartzen dugu esku auzoan edo inguruan:**
 - Egunkaria: hiru hilabetero argitaratzen dugu, ikastetxeko ikasle guztien ekarpenekin (Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBH).
 - Egutegia: ikasleen ideia eta ekarpenekin diseinatuta dago, eta hiruhilekoko prestakuntza-gaiari buruzkoa da.
 - Gizarte-mobilizazioetan laguntzea eta parte hartzea: gizarte aldarrikapenak, sinadurak biltzea, manifestazioak, grebak... Hezkuntza-komunitate osoak hartzen du parte.



Esperientziaren azalpen laburra

Ingurua zaintzea gure ikastetxean presentzia handia duen beste ardatz bat da.

- **Ikasgelan:**

- Ikasleak arduratzen dira ikasgela garbitzeaz.
- Materiala zaindu, konpondu eta berrerabiltzearen ardura azpimarratzen da.
- Materiala elkarrekin kudeatzen dugu; izan ere, eskolako materiala (liburuak, arkatzak, bolaluma...) ikastetxeak erosten ditu, ikasle guztiek behar dutena dutela bermatzeko eta beharrezkoa ez den gasturik ez eragiteko.
- Hondakinak birziklatzea.

- **Ikastetxe-mailan:**

- Ikasleek landareak ureztatzen dituzte, jolastokiko paperak jasotzen dituzte eta ingurune-zaratarekiko eta horrek dakartzan ondorioekiko kontzientzia garatzen dute, horma-irudien eta jardueren bidez, besteak beste.
- Ikasleek, irakasleek eta gainerako langileek ikastetxeko baratzea antolatu, mantendu, aztertu eta uzta biltzen dute, korridoreak horma-irudiekin apaintzen dituzte eta prestakuntza-jardura osagarrietan parte hartzen dute: natura-ikasgelak, udalekuak, hezkuntza-programak (ingurumen-zentroak eta abandonatutako herriak berreskuratzeko proiektuak), ikas-bidaia, gizartea eta ingurunea ezagutzeko jarduerak...
- Hezkuntza-komunitate osoak auzolanetan parte hartzen du ikastetxea garbitu eta mantentze-lanak egiteko, baita pertsonak zaintzen ere; era horretan, talde-kontzientzia garatzen da. Gainera, ikastetxeko hainbat ardura ere gauzatzen dira: jolastokia, jantokia, liburutegia, ludoteka, garbiketa...

- **Auzoan ere hainbat ekimen gauzatzen dira:**

- Ingurunea babestu eta garbitzea: erretenak, ezpondak, ibai-ertzak...
- Gizarte-mobilizazioetan laguntzea eta parte hartzea: grebak, sinadura-bilketak, manifestazioak: «Murtzia ez dago salgai», «Trenbideak estaltzea»...



Esperientziaren azalpen laburra

- Erakundeei birziklatzeko ontzi gehiago jar ditzatela eskatzea.
- Irisgarritasuna hobetzea: aparkalekua, bide-hezkuntza, sarbideak egokitzea...
- Asteburuetan ICEk mendi-ibilbideak antolatzea.

Funtzionamendu-dinamika eta -jarduera horiek antolatu eta egiteko, ezinbestekoa da hezkuntza-komunitatea osatzen duten eragile guztien parte-hartzea behar bezala kudeatzea, gobernu-organoen eta espazioen bidez:

- **Ikasgelan:**

- Tutoretzak.
- Eskola-kontseilua.
- Erantzukizunak: jantokia, jolastokia, garbiketa, aulkitxoak, liburutegia, ludoteka...
- Ekimenak: hiruhileko bukaera, egun garrantzitsuak (Bakea, Haurren Eskubideak...), emanaldiak...

- **Ikastetxe-mailan:**

- TutorÍCEa, asanbladen, eskola-kontseiluen eta beste organo batzuetako kideen bidez (ICEko ordezkariak dituzten lantaldeak, klaustroa eta zenbait alderdi hobetzeko lan egiten duten beste kolaboratzaile batzuk: kultura, mantentze-lanak, aisialdia, jantokia, irisgarritasuna...).
- Kolaboratzaileak, tailerren, eskolaz kanpoko jardueren, ipuin-kontaketen, kontzertuen, mendi-ibilaldien, hitzaldien eta abarren bidez.
- Klaustroa, eskola-kontseiluaren, guraso-eskolen, tutoretzen, bileren, bizikidetza-jardueren, guraso-bileren, asanbladen, hiruhileko amaierako ekitaldien eta abarren bidez.
- Kultur Elkartea ikastetxearen proiektua babesten eta bultzatzen duen erakunde bat da, eta honako hauek osatzen dute: kolaboratzaileak, irakasleak, irakasleak ez diren langileak, langile ohiak, eta ikastetxearen eraikuntzan, bilakaeran eta filosofian inplikaturik dauden langileak eta pertsonak. Erakunde horrek eskola-kontseiluaren eta



Esperientziaren azalpen laburra

asanbladen bitartez parte hartzen du; bertan, aurrera egiteko ildoak, metodologiak eta abar eztabaidatzen dira.

- **Auzoan, hainbat elkarte eta erakunderekin harremanetan gaude eta haiekin lan egiten dugu, hainbat helburu erdiesteko:** zenbait ikasle eta familiaren jarraipena egitea, ikasleek behar izan dezaketen eskola-laguntza bermatzea, familiei eta irakasleei zuzenduriko prestakuntzak eskainzea... Hona hemen erakunde horietako batzuk: Gurutze Gorria, Elikagai Bankua, InteRed, Ijitoen Idazkaritza, ASSIDO, FUNDOWN, Plataforma Prosoterramiento, etab.

Amaierako taulan ageri dira jarduera eta funtzionamendu-dinamika guztiak, laburbilduta eta antolatuta.

Zein zen helburua?

Gure hezkuntza-komunitatea kontzientziatu, motibatu eta mobilizatzea, ikasgelan, ikastetxean eta auzoan (gizartean) gorpuzten diren prestakuntza-jarduerak egiteko.

Zer egin nuen, eta nola?

Aipatutako esparruetan, pixkanaka-pixkanaka proposatutako hezkuntza-helburuekin lotuta dauden jarduerak planifikatu eta gauzatzea.

Zer lortu dut/dugu?

Hau lortu dugu: komunitate osoak hobeto ulertzea gure hezkuntza-prozesuak; lankidetzaren harremanak hobetzea IGE, hezitzaile, ikasle eta kolaboratzaileen artean, eta proposatu diren helburuei ikusgarritasuna emateko prestakuntza-ekintzak zehaztea. Hala, proiektu honen eraginak eta ondorioak egiaztatu ditugu, eta horrek lanean jarraitzera garamatza, dauden desberdintasunak orekatzen saiatzeko, ikasle batzuek euren ingurune hurbilenean eskuratu ezin dituzten aukerak sortzeko, balioetan oinarrituta hezteko oinarri duten gizarteratze-inguruneak sortzeko, eta garapenaren eta bizikidetzaren arloko ekimenak eta estrategiak sustatzeko.

Esperientziaren azalpen laburra

Eskola-egitura
eta -testuinguruko
zein elementu uste
dut izan direla
lorpenak eskuratzeko
bultzada edo balazta?

Hori guztia hainbat eta hainbat esperientzian islatzen da: ikusi dugu aldaketa positiboa eta nabarmena egon dela ikasle eta familiengan eta, ondorioz, baita gizarte osoan ere. Izan ere, hezkuntza-komunitate inplikatu eta eraldatzaile baten lanak eta ahaleginak gizarte osoa aberasten dute.

Proiektu honen funtzionamendu egokia ahalbidetzen duen elementu nagusia komunitate osoaren parte-hartzea eta inplikazioa da, funtsean: klaustroa, eskola-kontseilua, IGEa eta ikasleak. Motor horri esker, proiektua eraikuntza bateratu, indartsu eta solidoa da, agertzen diren zailtasun guztiei aurre egiteko gai dena; izan ere, esparru guztietan norabide berean egiten dugu aurrera, oro har. Horretarako, elkarrekin hitz egin eta hausnartzeko espazioak sortu ditugu, zeharkako ikuspegi batetik.

Elkarrekin egiten dugun lan hori, baina, gogorra eta konplexua da, eta, batzuetan, prozesua zailtzen du; hala ere, berezko zaio hori. Dena den, gogoan izan behar dugu oso garrantzitsua dela harreman eta elkar-truke hori zaintzea eta txeratzea; horrela, kendu beharrean, gehitu egingo dute, eta hazten lagunduko digute.

Esperientzia aberasten duen beste faktore bat talde guztiaren, familiaren eta, modu orokorragoan, komunitate osoaren babesa eta konfiantza da. Horrek indartu egiten ditu deskribatutako ekintzak eta, horri esker, emaitzak hobetzen dira eta errazagoa da proiektuaren helburuak erdiestea.

Hezkuntza-proiektuaren konplexutasuna ikusita, ezinbestekoa da klaustroak eta irakasleak ez diren langileek ulertzea proiektuak zenbateko ahalegina eta inplikazioa dakarren; horretarako, diziplinarteko talde osagarri bat prestatzen dugu, guztiok izan gaitezen jarritako erronkak erdiesteko funtsezko elementu.

Batzuetan, hala ere, zailtasunak aurkitzen ditugu familia batzuekin lan egitean, ez dituztelako alderdi batzuk partekatzen edo ez dutelako proiektu osoa ezagutzen.



Esperientziaren azalpen laburra

Zer ikasi dut
eta zer erronka
agertu dira?



Horrez gain, ikastetxean beranduago hasi diren ikasleak jarduketa hauen dinamiketan txertatzea ere zaila da; izan ere, ez daude ohituta jarduerak eskatzen duten inplikazio mailara, ez eta haien denbora librearen zati bat proiektuari eskaini behar izatera ere.

Erakundeeketa haien eskakizun burokratikoek ere gure funtzionamenduari eragiten diote; izan ere, horretan eman behar den denborak eta lanak oztopatu egiten du ikasleekin eta familiekin zuzenean egiten dugun lana, edo ez dute zuzen islatzen egiten dugun ahalegina eta lana.

Talde-lana da hezkuntzaren arloko helburu erreal eta zehatzak, ikasleek eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideek hauteman ditzaketenak, lortzeko estimulurik handiena.

Proiektu honekin, asko hazi gara hainbat alderditan. Gainera, proiektua bizi izan ditugun garaietara egokituz joan gara ia 50 urte hauetan. Izan ere, agertuz joan diren beharrezanez erantzun diegu, iruditu baitzaigu gure parte-hartzea eta inplikazioa garrantzitsua zela. Hala, ez gara gure jarduketa-esparrura zurrun-zurrun mugatu; harago ere joan gara, gure komunitateari eta, azken finean, gizarte osoari, aurrera egiten lagunduko dion eraldaketa bat pizteko.

Era horretan, ikasi dugu bilatzen dugun aldaketa benetan gerta dadin komunitate osoa modu aktibo eta benetakoan inplikaturik egon behar dela. Hori bera zailtasun ere bada; izan ere, elkarrekin lan egitean, baliteke hezkuntza-komunitateko kide guztiek beti ez bat egitea interes edo motibazio berberetan.

Beste erronka bat da aurrera egin eta hazi ahala egiten ditugun aldaketek proiektua eta haren eragina ez murriztea. Horretarako, beharrezkoa da hausnarketa, azterketa eta guztion arteko adostasuna. Horretarako egiten diren eztabaida, asanblada eta elkargunek giro eraikitzailea, horizontala eta errespetuzkoa eskaini behar dute, jarritako helburuak erdiestea edo agertu diren zailtasunak gainditzeko xede.

Esperientziaren azalpen laburra

Esperientzia
hau prestatzen
eta gauzatzen
lagundu duten
pertsonak eta
erakundeak:

Laguntzazko/
erreferentziazko
baliabideak edo
materialak:

Klaustroa, eskola-kontseilua, ikasleak, familiak, IGEa, Kultur Elkartea, eta kolaboratzaileak. Jarduera gehienek diseinua eta zehaztapena gai bakoitzerako sortutako lan-batzordeen bidez egin da.

Personas u organizaciones que han participado en la preparación y ejecución de la experiencia:

PARTE-HARTZEA ETA ANTOLAKUNTZA ESKOLA-TALDEA				
BALIOETAN OINARRITUTA HEZTEA		INGURUA ZAINTEA		PARTE-HARTZEA KUDEATZEA HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN
Giza eskubideak	Hezkuntzarako funtsezko balioak	• Errespetua • Ezagutza	• Kontserbazioa • Zaintza	Agente GUZTIAK inplikatzeko beharra
Berdintasuna Duintasuna Enpatia Errespetua Askatasuna Tolerantzia Malgutasuna Jakinmina Elkartasuna	↓ Ardura Kulturartekotasuna Lankidetzatza Kidetasuna Asertibitate Sormena Koedukazioa Autonomia	↓ Denona den ingurua ↓ Zaindu beharreko planeta	↓ Helburu bateratua lortzea ↓ Elkarrekin lan egitea Hiritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzailearen alde	



Esperientziaren azalpen laburra

BALIOETAN OINARRITUTA HEZTEA

EREMUA	JARDUERAK	AGENTEAK
IKASGELA	• Elkarbizitza-akordioak	Klaustroa
	• Ikasgelako batzarra: Gatazkak konpontzea, erantzukizunak aztertzea, gizarte-gaiak eta abar	Ikasleak eta irakasleak
	• Hiruhilekoko gaia lantzea: Marrazkiak, horma-irudiak, poemak... • Berdinen arteko tutoretza	Ikasleak
ZENTROA	• Hiruhilekoko gaia aukeratzea	Klaustroa
	• Hiruhilekoko gaia lantzea: Horma-irudiak, erreztalak, dinamikak, egunkariak, almanaka eta abar	Klaustroa eta ikasleak
	• Bizikidetzak • Gurasoen eskola • Batzarrak • Ardurak: Jolastokia, jangela, liburutegia, ludoteka, garbiketa eta abar • Eskolaz kanpoko jarduerak • Natura-ikasgelak eta udalekuak	Hezkuntza-komunitatea
AUZOA	• Egunkaria • Egutegia	Ikasleak eta klaustroa
	• Gizarte-mobilizazioak babestea eta hori parte hartzea: gizarte-aldarrikapenak, sinadura-bilketa, manifestazioak, grebak eta abar	Hezkuntza-komunitatea

PARTE-HARTZEA KUDEATZEA HEZKUNTZA-KOMUNITATEAN

EREMUA	PARTE HARTZEKO TRESNA	AGENTEAK
IKASGELA	• Tutoretzak • Eskola-kontseilua • Ardurak: Jangela, jolastokia, garbiketa, hamakatxoak, liburutegia, ludoteka, , eta abar • Ekitaldiak: Hiruhileko bukaera, oroitzen-egunak (bakea, haurren eskubideak), erreztalak...	Ikasleak eta irakasleak
ZENTROA	• Batzordeak (lantaldeak): kultura, mantentzea, aisia, jangela, irisgarritasuna eta abar • Eskola-kontseilua	IGE
	• Tailerrak, eskolaz kanpoko jarduerak, ipuin-kontalariak, kontzertuak, xenda-bideak, hitzaldiak eta abar	Laguntzaileak
	• Gurasoen eskolak, tutoretzak, bilerak, bizikidetzak, guraso-elkarriketak, batzarrak, hiruhileko bukarako ekitaldiak eta abar	Klaustroa
	• Batzarrak: Aurreratzeko lerroak, metodologiak, eta abar • Eskola-kontseilua	Kultura elkarteak
AUZOAK	• Gurutze Gorria • InteRed • Ijitoen Idazkaritza • ASSIDO • Plataforma Prosoterramiento • FUNDOWN • Ikasleen eta familien segimendua • Eskola-laguntza • Prestakuntza	Elkarteak

Esperientziaren azalpen laburra

INGURUA ZAITZEA		
EREMUA	JARDUERAK	AGENTEAK
IKASGELA	• Garbiketa	Ikasleak
	• Materiala zaintzea: konpontzea, berrerabiltzea eta abar	Hezkuntza-komunitatea
	• Denen materiala: liburuak, material suntsikorra, ikasgelako materiala eta abar • Birziklatzea	Ikasleak eta irakasleak
ZENTROA	• Landareak ureztatzea • Jolastokiko paperak biltzea • Inguruko zarataren eta haren ondorioen gainean kontzientziatzea: horma-irudiak, jarduerak eta abar	Ikasleak
	• Eskolako baratzea: landatzea, ureztatzea, mantentzea, biltzea, aztertzea... • Korridoreak apaintzea • Trebakuntza-jarduera osagarriak: Natura-ikasgelak, hezkuntza-programak (ingurumen-zentroak eta abandonatutako herriak leheneratzea), ikasketa-bidaia, ingurumen- eta gizarte-intereseko irteerak eta abar	Ikasleak eta irakasleak
	• Garbiketa orokorrak, zentroa garbitzea eta mantentzea • Pertsonak zaintzea: Talde-kontzientzia • Ardurak: jolastokia, jangela, liburutegia, ludoteka, garbiketa, eta abar	Hezkuntza-komunitatea
AUZOA	• Ingurua garbitzea: Ubideak, ezpondak, errekaak eta abar	Ikasleak eta irakasleak
	• Gizarte-mobilizazioak babestea eta hori parte hartzea: grebak, sinadura-bilketak, manifestazioak, "Murtzia ez dago salgai", "Trenbideak lurperatzea"	Hezkuntza-komunitatea
	• Erakundeei birziklatzeko edukiontzi gehiago jartzea eskatzea	Ikasleak
	• Irisgarritasuna: aparkalekua, bide-hezkuntza, sarrerak egokitzea eta abar	Klaustroa eta ICE
	• Xenda-bideak	ICE eta ikasleak

Finantzaketa:



Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziak (AECID) finantzatutako hitzarmen baten parte da argitalpen hau: «Hezkuntza eraldatzaileraren eta hiritartasun globalaren aldeko mugimendua» (kodea: I4-COI-642). Argitalpen honen edukia, Herritartasun Globalerako Hezkuntza Eraldatzaileraren aldeko Mugimenduaren parte diren erakundeen erantzukizun soila da, eta ez du, beharrez, AECIDen iritzia islatzen.